

JAKINARAZTEN DIZUT Alkateak gaurko egunean ondorengo Dekretu hau eman duela:

“Kultura Zerbitzuko arduradunak, Sormen Beka dirulaguntzaren espedientearen baitan, honako txostena helarazi du:

“Begarako Udalak 2022ko abenduaren 26an, Kultur Sorkuntzarako Beka deitzea erabaki zuen. Azaroaren 17ko 38/2003 Legeari jarraiki, 2023ko otsailaren 13an deialdia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (29 buletina), baita Diru Laguntzen Datu Base Nazionalean ere (Erreferentzia: 672847).

2023ko martxoaren 31an emandako dekretuan erabaki zen “Atalak” proiektua kanpo uztea deialdiko 4.7 atalean jasotakoaren arabera taldekideak erroldatuta izatearen baldintza betetzen ez duelako. Bestalde, “Xune, entzuten gaituzu?” proiektuaren eskatzaileari 10 egun balioduneko epea eman zitzaion inprimakia behar bezala beteta aurkezteko. Eskatzaileak zuzenketa aurkeztu du eta zuzena da.

Deialdiaren 11.artikuluaren honako balorazio irizpideak jasotzen dira:

11. artikulua.- Balorazio irizpideak

Aurkeztutako proiektuak baloratzeko erabiliko diren irizpideak honako hauek izango dira:

Proiektuaren azalpenaren egokitasuna eta zehaztasuna: 10 puntura arte.

Proiektuaren interesgarritasuna, publiko berriak sortzeko edo inplikatzeko gaitasuna, Bergararentzat duen garrantzia (kulturala, historikoa, artistikoa...), kalitatea, izaera berritzailea eta sortzailea: 35 puntura arte.

Proiektu berean kultur diziplina bat baino gehiago erabiltzea: 5 puntura arte.

Bestelako eragile sozial zein kulturekin sinergiak planteatzea: 5 puntura arte.

Genero ikuspegia txertatzea, bai sorkuntzaren emaitzan bai ekoizpen edo sorkuntza prozesuan. Halaber, artista edo artista talde horrek diziplina jakin horretan generoen errepresentazioarekin apurtzea ere balora dezake Balioespen Batzordeak: 5 puntura arte.

(...)

Beka puntuaziorik altuena lortzen duenari emango zaio, eta gutxienez 35 puntu lortu beharko dira (kontuan hartuta 8. artikuluan xedatutakoa). Hala, batzordeak deialdia bete gabe utzi ahal izango du, baldin eta irizten badio proposamen batek ere ez duela behar adinako interesik edo kalitaterik lortu.

Halaber, 12.artikuluan adierazten da Balioespen Batzorde batek ebaluatuko dituela aurkeztutako eskaintzak.

Deialdian jasotako kideez osatutako Balioespen Batzordeak balorazio txostena igorri du, honako proposamena eginez:

	Balorazio irizpidea 1	Balorazio irizpidea 2	Balorazio irizpidea 3	Balorazio irizpidea 4	Balorazio irizpidea 5	OROTARA
“Loerre” film laburra	7	28	4	1	1	41
“Xune, entzuten gaituzu?”	9	23	4	0	1	37

2023ko apirilaren 20an, ostera, Mariñe Jauregi Azkargorta eskatzaileak, **prozesuan atzera egiteko nahia** adierazi du. Ez da eragozpen juridikorik ikusten atzera egitea kontuan hartzeko. Hori horrela, onuradun bakarra da Joseba Ceciaga Larrañaga jauna.”

Herritarren Batzordearen oniritzia izanda, **ERABAKI DUT**

LEHENENGOA: Begarako Udalak deitutako 2022ko Kultur Sorkuntzarako Bekaren baitan, honako diru-laguntza ematea eskatzaile honi:

Eskatzailea	Proiektua	Zenbatekoa
Joseba Ceciaga Larrañaga (72****42F)	“Loerre” film laburra	4.200 euro

Onuradunak dirulaguntza onartu egin duela joko da baldin eta erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 10 egun balioduneko epean ez badu kontrako egintzarik gauzatzen

BIGARRENA: Mariñe Jauregi Azkargorta eskatzaileak prozesuan atzera egiteko aurkeztutako eskaera onartzea eta hala, eskatzailea prozesutik kanpo uztea.

HIRUGARRENA: Amaia Santamaria Andres (44****85C) andreak aurkeztutako eskaera (“Atalak” proiektua) ezestea, deialdiko 4.7.artikuluan atalean jasotakoaren arabera taldekideak erroldatuta izatearen baldintza betetzen ez duelako.

LAUGARRENA: Ebazpen proposamena Alkateari, organo eskuduna den heinean, helaraztea eta ebazpena udal webgunean, iragarki oholean zein Diru-Laguntzen Datu Basean argitaratzea.

BOSGARRENA: Kontu-hartzailezari ebazpenaren berri ematea eta 4.200 euroko gastua xedatzea honako aurrekontu-partidari egotzita: 1 3310.481.334.04.00 2023 (B.K. 1435)”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau jasotzen duzun hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen duzun hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Begara, 2023ko maiatzaren 19a
IDAZKARIA

